



Oparitu euskaraz

Orotara, euskarazko produktuen 260.000 katalogo inguru banatuko dituzte Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Lapurdin

G abonak iristear dira eta urte sasoi honetan egin eta jaso izan ohi dira opari gehien, etxean haurrak daudenean, batez ere. Zer oparitu? Zein adinetarako da egokia halako jostailua? Zer oparitu dezakegu euskaraz? Inoiz baino gehiago gurasoek euren buruari behin eta berriz egiten dioten galderak dira. Kezka horri irtenbidea emate aldera, kalean da Euskarazko 2007-2008 Produktuen Katalogoa.

Jada eskuartearen ez baduzue, datozen egunetan jasoko duzue 16 urte arteko haur eta gazteentzako Euskarazko Produktuen Katalogoa. Liburuxkan, euskaraz argitaratzen diren produktu berrienak eta hauen inguruko informazioa - argitaletxea, prezio tartea, zein adin tarterako den egokia, eta abar- jaso dituzte, etxeko haur eta gazteok euskaraz jolasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten. Euskaraz kaleratzen diren produktu denak ezin sartu eta aukeraketa bat da katalogoan jaso dutena.

Euskal Herri osoan 260.000 ale banatuko dituzte ikastetxe nahiz etxeetako postontzietan. Aurten, gainera, Lapurdin ere banatuko dituzte lehendabizikoz.

Zortzi atal

Euskarazko produkzioa areagotzen joan den heinean, zerbitzuaren eskaintza ere handitzen joan da. Hortaz, aukera zabala ematen du egunotan argitaratu duten liburuxkak, euskarazko aisia produktuei dagokionez. Katalogoaren edukia zortzi ataletan banatu dituzte: musika, informatika, bideoak, DVDak, liburuak, komikiak, jostailuak eta aldizkariak.

Aurreko urteetatik katalogoa ezagutzen duzuenok, bi berrikuntza nabarmen aurkituko dituzue ohiko informazioarekin batera. Batetik, gurasoentzako atala osatu dute eta haur txikiak batera erabiltzeko materiala aurki daiteke. Bestetik, komikien atal aparteko tartea hartu du katalogoan.

Arestian aipatu bezala, liburuxkan ez dira euskarazko produktu guztiak agertzen baina erreferentzi gisa balio du. Liburuxkaren prestaketan eta produktuen aukeraketan herrialde desberdinetako euskara teknikariek hartu dute parte, hots,



Eskolaz kanpo, aisan ere euskaraz hitz egiteko aukera izatea ezinbestekoa da haurrentzat, baita euskararentzat ere.

Gipuzkoakoak, Bizkaikoak, Arabakoak, Nafarroakoak eta Lapurdikoak, azken hauek lehendabizikoz.

Buruntzaldeko liburu dendetan

Euskarazko Produktuen Katalogoan agertzen diren produktuak Buruntzaldeko edozein liburu dendetan daude eskuragarri. Dendariek eskaintza erosleentzat prest izan dezaten, alde zuzenean jasotzen dituzte katalogoak.

Katalogoan agertzen diren produktuak adin tarteka sailkatuak daude eta bertan agertzen den salneurria orientagarria dela azpimarratu behar da, prezio zehatzak agertu behar diren, hots, produktuak lau prezio tarteen arabera daude sailkatuak.

Paperean eta interneten

Arestian aipatu bezala, 260.000 ale banatuko direla Euskal Herrian aipatu badugu, interneten ere ikusgai jarri dutela esan behar da. Produktuen eskaintza kontsultatzeko, www.katalogoa.org web atarian sartu besterik ez dago.

Euskaraz argitaratzen diren produktu berrienak eta hauen inguruko informazioa jaso dute katalogoan

Euskarazko Produktuen Katalogoan ageri den materiala Buruntzaldeko liburu dendetan erosi daiteke

Banatuko dituzten 260.000 alez gain, www.katalogoa.org web atarian kontsultatu ahalko da katalogoa

Nobedadeak: gurasoentzako atala eta komikiena.

Gurasoentzako atalean haur txikiarekin batera erabiltzeko materiala bildu dute. Komikiek berriz, aparteko tartea hartu dutes aurreko katalogoan.



2007-2008
euskarazko
produktuen katalogoa
www.katalogoa.org